

## *“Gurasotasuna: zer behar dute gure seme-alabak?”*

**Bergaran, ekainaren 8an, 18:00etatik 19:00etara HITZALDI-TAILERRA**

**ETXADI.** [0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua](#) Egin zure kontsulta Telefono bidez: 94405 1549 (Ostegunetan: 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara) edo <http://www.etxadi.org> edo [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webguneetan Bergarako Udaleko inprimakia betez.

Aita edo ama izatearen funtzioetako bat ume eta nerabeen eskubideak bermatu eta pertsona autonomo gisa beraien garapen integrala sustatzea da.

Oro har, helburu hori lortze aldera, familia batek edo familia osatzen duen heldu bakoitzak irizpide propioak izan ohi ditu. Batzutan irizpidea norberak bizipenetatik eratortzen da, *“nire amak edota aitak irakatsitakoa irakasten dizut, ez zuten eta batere gaizki egin!”* eta bestetan aldiz, kontrara *“nire gurasoak oso autoritarioak izan ziren eta nik ez dut nahi heziketa mota hori nire seme-alabentzat”*.

Argi dago, seme-alabekin jarduteko eta seme-alabak hezteko ikuspegi desberdinak daudela egun, hau da, guraso-erantzukizuna interpretatzeko moduak eta moduak daudela. Hala ere, badira oinarritzko printzipio batzuk, gurasotasuna eta erantzukizunaren jardunaren bizkarrezur direnak.

Printzipio hauek, ume eta nerabeen garapen egokia eta ongizate fisikoa eta mentala sustatzen dituzte (Rodrigo eta Palacios, 1998).



Beraz, ume edo nerabeen zaintzaz eta heziketaz arduratzen den heldu orok, jarduteko ondorengo irizpideak aintzat hartu beharko lituzke:

1. **Lotura afektibo goxoak, babesleak eta egonkorrak ezarri**, haur, ume eta gazteak onartuak eta maitatuak sentitzeko.
2. **Testuinguru egonkorra eskaini**. Adin txikikoek arauak eta baloreak barneratzeko, gurasoak eredu, gidari eta ikusle izan behar dute.
3. **Eguneroko ikaskuntza estimatu** eta ikaskuntza prozesuan laguntza eskaini, adin txikikoen motibazio eta gaitasunak sustatzeko.
4. **Seme-alabak baloratu**. Beraien munduarekiko interesa agertu, beraien esperientziak balioetsi, beraien kezkekiko ardura adierazi eta beraien beharrianak asetu.
5. **Seme-alabak trebatu**. Agente aktiboak direla, konpetenteak eta gauzak aldatzeko edota besteengan eragiteko gai direnaren pertzepzioa sustatu.
6. **Biolentzia-eza**. Zigor fisiko edota psikologikoa onartzen duen hezkuntza baztertu. Osotasun fisikorako eskubidea eta giza duintasun eskubideak urratzen ditu.



Hala ere, familia bakoitzak edo familia osatzen duen heldu bakoitzak momenturen batean edo beste, estresagarria izan daitekeen egoera pertsonal (tristura, senide baten heriotza, krisi nerbiosoa, bikotea krisian egotea...) edota sozio-ekonomiko latza (lana galdu, lanean arazoak izan, gastu gehiegi, krisia...) bizi dezake. Egoera horrek norberarekin eta besteekin duen harremanean zailtasunak eragin ditzake. Are gehiago, egoera puntuala izan edo ez (luzaroan mantentzen bada), ondorioak izan ditzake ere seme-alabekin eraiki duen harremanean. Horregatik, eguneroko jarduna zailtasunez eta kostata aurrera eramaten den egoeretan laguntza behar izaten da, bereziki seme-alaben beharrianak, pertsonalak nahiz sozialak, antzeman eta asetu ahal izateko.

Babesa edo laguntza, baldintzarik gabe maite gaituzten pertsonengan (senide, lagun...) edo instituzioetako zerbitzuetan aurki daiteke (arreta pertsonala, soziala...). Laguntza ez da inoiz "besteek gure ordeztu erabaki edo egitea", behar denerako baliabide bat baizik. Baliabide horren azken helburua, seme-alaben gaitasuna sustatzea eta garapen egokia lortzea da.



Finean, gurasotasuna, ume eta nerabeen beharrianen errespetuan oinarritzen da, beraien garapena sustatuko duten ekintzak aurrera eramatean. Besteak beste, atxikimendu lotura indartzen, jolasaren bidez elkarrekintza ahalbidetzen, gatazkarik gabeko komunikazioa bermatzen, ... kontutan hartuz, betiere, familia bakoitzaren testuingurua, zirkunstantzia indibidualak, sozialak eta kulturalak, eta guraso bezala norbanako bakoitzak dituen abileziak.

Tratu onak, umeen garapena eta ongizate egokia ahalbidetzen du. Horretarako, familiak, umeen beharrianak identifikatu eta haur, ume edota nerabe bakoitzari egokiturako jarduera eta ekintzak jarri behar ditu martxan, betiere, errespetuan, arretan, hezkuntzan, arauen ezarpenean eta afektuan oinarrituak hauek. Horrela, haur, ume eta nerabeek autoestimu positiboa garatuko dute eta gizartean sano eta zoriontsu haziko dira.

Gomendatutako esteka:

[Maitasunez hezteko 10 aholku praktiko](#) (Save the Children)

